

Ermuko Musika Eskolako ikasle eta irakasleak Budapesten

aiatzaren 18tik
21era Alboka
abesbatza eta
Alboka Musika

Eskolako trikitrilariak Budapesten izan ziren, IX. Europako Musika Eskolen Jaialdian. Lehenengo aldiz hartu dute parte ermurrek Europako toki ezberdinetan urtero egiten den jaialdi honetan, baina aurreko gonbidapena onartu eta joatea erabaki zuten. 4 eguneko bidaian guztira 29 lagun izan ziren eta Alboka abesbatza-ren fondoetatik finantziatu zen irteera.

Egonaldia ez zen luzea izan baina oso ondo "aprobetxatu" zutela diote Musika Eskolako arduradunek. Hungriako hiriburuan egon ziren 4 egunetan bi kontzertu eskaini zituzten Ermutik joan ziren abeslari eta trikitilariak.

Euskal kanta ezberdinak, agurra dantzariekin, fandango, arin-arin dantza eta trikitixarekin jo zituzten kan-tek osatu zuten Budapesteko auzo ezberdinetako kaleetan eskainitako bi saioak.



Jaialdirako saioetan ez ezik, bestela ere kantuan ibili ziren kaleetan barrena. Bidaia-aren helburua, Euskal Herriko musika tradizionala, Europan erakustea eta beste herrialde batzuetako musika eskolek egiten dutena ezagutzea baitzen.

Budapest ezagutzen

Musika eta kontzertuetarako denboraz gain, Budapest ezagutzeko beta ere izan zuten eta batez ere, Europako musika eskola ez-

berdinetako jendea ezagutzeko aukera.

Musika emanaldiak bukatu ostean, hiria ezagutzeko aprobetxatu zuen taldeak. Horretarako, autobusez egindako bira batean, Budapesteko tokirik garrantzitsuenak ikusi eta bertako historiari buruzko azalpenak entzun zituzten. Larunbat gauean, itsasontziz Danubio ibaia zeharkatu zuten eta igandean Szechenyi termak bisitatu zituzten. Bertan, ia 3 orduko egonaldia egin zu-

ten erlaxatzeko.

Musika Eskolako arduradunen esanetan, "Esperientzia aberasgarria izan zen ikasleentzat, Europako musika eskolen emanaldiak eta bertako taldeetako jendea ezagutu ahal izan zutelako eta eurekin oraindik ere harremanetan jarraitzen dutelako. Horrez gain, Budapest hiriaz gozatzeko aukera paregabea izan zutelako". Aurtengo esperientziaren ondoren, hurrengo urterako ateak irekita geratu dira.

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA


MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83